



8.1. DIRU-LAGUNTZA LERROA: EMAKUMEEN KIROLA SUSTATZEKO PROGRAMAK- 2019. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

LINEA DE SUBVENCION 8.1.: PROGRAMAS FOMENTO DEL DEPORTE DE MUJERES - 2019. BASES ESPECÍFICAS.

1- Diru-laguntzaren xedea

Lerro honen helburua da diru-laguntzak ematea erakunde eskatzaileek emakumeen kirolaren inguruan Errenterian egindako programak finantzatzeko, besteak beste, jarduera hauek: lagunarteko (ez-ofizialak) kirol-probak eta -txapelketak antolatzea Errenterian, emakumeen kirola dinamizatzeko; kirol-talde bateko emakume-talde federatuek (hartara, ez dira sartzen benjaminen eta kimuen kategoriak) txapelketa ofizialetan parte hartzea; emakume kirolariek beren kabuz txapelketa federatu ofizialetan parte hartzea; erakunde emakumeen kirola sustatzeko plan bat prestatzea eta gauzatzea; lerro honen xedearekin bat datorren helburuarekin antolatzea jardunaldiak, lantegiak, dibulgazio-kanpainak, hitzaldiak eta antzekoak; eta, oro har, emakumeak kirola egiteko duten motibazioa indartzeko 2018-2019 denboraldiko programak. Hartara, onuradun izango dira 2018ko urriaren 1aren eta 2019ko irailaren 30aren artean burututako denboraldia eta jarduerak, xedea bat badator Errenteriako Udaleko Berdintasun Azpisailaren helburuekin.

2.- Diru-laguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua

Diru-laguntzen zenbatekoa 2019ko aurrekontuko partidaren kontura izango da:

- 1.1330.481.01.231.50: Diru-laguntza

1- Objeto de la subvención

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para la financiación de programas realizados por las entidades solicitantes relacionadas con el desarrollo del deporte femenino en Errenteria, como por ejemplo y sin que suponga una relación cerrada: la organización y realización de pruebas y torneos deportivos en Errenteria de carácter amistoso (no oficial) que supongan una dinamización del deporte femenino, la participación de equipos federados femeninos de un club (excluido por tanto el deporte correspondiente a las categorías escolares benjamín y alevín) en competiciones oficiales, la participación a título individual de mujeres deportistas en competiciones federadas oficiales, desarrollo y ejecución de un Plan de Fomento del deporte femenino dentro de la entidad, organización de jornadas, talleres, campañas divulgativas, conferencias y/o similares cuyo objetivo sea conforme con el objeto de esta línea de subvención y con carácter general, programas que tenga como objetivo reforzar la motivación de las mujeres hacia el deporte correspondientes a la temporada 2018-2019, es decir, la temporada y actividades realizadas entre el 1 de octubre de 2018 y el 30 de septiembre de 2019, y cuyos fines sean acordes con los objetivos de la Subárea de Igualdad del Ayuntamiento de Errenteria.

2- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.

El importe de las subvenciones irá con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2019:

- 1.1330.481.01.231.50: Subvenciones



generikoak.

Diruz lagunduko den lerro honetarako dagoen aurrekontua 6.000 €koa da eta 2019ko partidaren A-64/2019 zorpeko eskariaren kargura ordainduko da.

Diru-laguntza deialdi hau onartzen den unean 2019ko aurrekontua izapidetzen ari bada ere, espedientean jaso dago Alkateak aurkeztu duen aurrekontu proiektuak aurreikusten duela aipaturiko partida.

Diru-laguntzaren diru-kopuruak ez du inoiz diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko, ez bakarrean, ezta aldi berean beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin batuta ere.

3.- Pertsona onuradunak, diru-laguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era.

Diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute emakumeek osatutakoa izan, egoitza soziala Erreterian duen elkarte bati lotuta egon eta lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirol- talde federatuek eta kirolari elkarte federatuek. Baita Erreterian erroldatuak dauden emakume kirolari federatuak ere.

Berariaz kirol-taldeak diren horiez gainera, kirol indibidualean aritzen diren kirolariek ere aukera izango dute deialdi honetan aurkezteko, betiere, talde gisa aurkezten badira. Talde gisa aurkezteko, gutxienez 6 kirolarik osatu beharko dute taldea eta kirolari guztiek kategoria berekoak izan beharko dute (infantil-kadeteak, jubenilak, juniorrak edo seniorrak)

Era berean, diru-laguntzarako aukera izan dezakete, egoitza soziala Erreterian ez duen elkarte bati lotuta egon arren, lehiaren jarduera nagusiki Erreterian garatu eta nagusiki Erreterian bizi diren kirolariez osatutako taldeek (nagusiki Erreterian bizi diren

genéricas.

La disponibilidad presupuestaria para esta línea de subvención asciende a 6.000 € e irá con cargo al contraído A-64/2019 de la partida del año 2019.

Si bien el presupuesto de 2019 se encuentra en tramitación en el momento de aprobarse la presente convocatoria de subvención, consta en el expediente que el proyecto de presupuesto presentado por el Alcalde contempla la partida mencionada.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

3.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.

Podrán optar a la subvención todos aquellos equipos deportivos federados o agrupaciones de deportistas federadas formados por mujeres que estén vinculados a un club con domicilio social en Erreteria y que participen en competiciones oficiales. Así como las mujeres deportistas federadas que estén empadronadas en Erreteria.

Además de los equipos propiamente dichos, en el caso de modalidades deportivas individuales, podrán presentarse también agrupaciones de deportistas. Para la presentación de agrupaciones, el número de deportistas que conformen la agrupación deberá ser como mínimo de 6 y todas ellas deberán estar adscritas a una misma categoría deportiva (infantiles-cadetes, juveniles, junior o senior)

Podrán también optar a la subvención equipos o agrupaciones que, a pesar de que sus entidades no tengan el domicilio social en Erreteria, su actividad competitiva se desarrolle principalmente en Erreteria y cuenten con una plantilla



kirolariak esaten dugunean, gutxienez kirolarien %60az ari gara).

Horrenbestez, diru-laguntzen onuradun izango dira aurreko paragrafoetan azaldutako baldintzak betetzen dituzten kirol elkarteak.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek ERRETERIAKO UDALAK 2019 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN seigarren oinarrian adierazitako dokumentazioaz gain, ondorengo ere aurkeztu behar dute eskaerarekin batera:

a) Eskatera egin duen elkarte edo erakundearen estatutuak, baldin eta lehendik aurkeztu ez badira edo aldaketaren bat egin baldin bada.

4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Emakumeen kirola sustatzeko programetarako diru-laguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean eta amaituko da 2019ko otsailaren 1ean.

Epe horretan zehar Berdintasun azpisailera jo daiteke informazio eske (943 449576 edo berdintasuna@errenteria.eus).

5.- Balorazio batzordea

Diru-laguntza lerro honetako Balorazio batzordean, ERRETERIAKO UDALAK 2019 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN Zortzigarren oinarrian zehaztutako pertsonaz gain, Kirol azpisailleko arduradun teknikoa ere kide izango da.

mayoritariamente compuesta por deportistas que residen en Errenteria (se considerará mayoritaria cuando el 60% de la misma lo sea).

Por lo tanto, podrán ser beneficiarias de las subvenciones aquellas entidades o personas que cumplan con las características descritas en los párrafos anteriores.

Documentación a presentar con la solicitud

Quienes soliciten deberán presentar con la solicitud, además de la documentación establecida en la base sexta de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA DURANTE EL AÑO 2019, la siguiente documentación:

a) Estatutos de la asociación o entidad solicitante, si no han sido presentadas con anterioridad o si han sufrido alguna modificación.

4.- Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención para programas para el fomento del deporte de mujeres estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 1 de febrero de 2019.

Durante ese plazo se podrá solicitar información dirigiéndose a la subárea de Igualdad (943 449576 o berdintasuna@errenteria.eus).

5.- Comisión de Valoración

La Comisión de valoración de esta línea de subvención estará compuesta, además de por las personas señaladas en la Base Octava de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA DURANTE EL



AÑO 2019, por la persona técnica responsable de la subárea de Deportes.

6.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

Eskabideak baloratzeko irizpidea norgehiagoka izango da. Beraz, eskari guztietan ondoko irizpide objektiboak ezarriko dira:

Helburu honetarako urtero onartzen den aurrekontu partidako kopurua onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da, jarraian agertzen den taularen arabera, eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatu da. Puntu bakoitzaren balore ekonomiko hori eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin biderkatuko da, eta horrek emango digu jaso beharreko diru kopuruaren zenbatekoa, oinarri espezifiko hauetako 2. puntuan adierazitako mugarekin.

6.- Criterios de valoración de las solicitudes.

El criterio de valoración de las solicitudes será el de concurrencia competitiva. Por lo tanto, en todas las solicitudes se aplicarán los siguientes criterios objetivos:

La partida presupuestaria aprobada anualmente para este concepto se dividirá entre la suma de puntos otorgados a todas las solicitudes admitidas, de la manera que aparece en la tabla que sigue a continuación, y así se calculará el valor económico de un punto. Este valor económico de cada punto se multiplicará por los puntos conseguidos por cada solicitud, lo que determinará la cuantía a percibir, con el límite indicado en el punto 2 de estas bases específicas.

EMAKUMEEN KIROLA SUSTATZEKO PROGRAMAK		PROGRAMAS PARA EL FOMENTO DEL DEPORTE DE MUJERES.	
Emakumeen presentzia eta garrantzia entitatearen jarduean		Presencia y peso de las mujeres en la actividad de la entidad	
Zuzendaritzako kide-kopurua	5 puntu bitarte	Número de personas en la directiva	Hasta 5 puntos
Kide-kopurua lantalde-teknikoan	5 puntu bitarte	Número de personas del equipo técnico	Hasta 5 puntos
Programa/jardueren ingurukoak		En cuanto al programa/actividad	
Programaren kalitatea (genero ikuspegia, hizkuntza eta kultur aniztasuna)	20 puntu bitarte	Calidad del programa (perspectiva de género, idioma y diversidad cultural)	Hasta 20 puntos
Alderdi berritzaileak	10 puntu	Aspectos innovadores	10 puntos
Programaren antzintasuna		Antigüedad del programa	
- 2 urte baino gutxiago	5 puntu	- Menos de 2 años	5 puntos
- 2 eta 5 urte bitarte	8 puntu	- Entre 2 y 5 años	8 puntos
- 6 eta 10 urte bitarte	10 puntu	- Entre 6 y 10 años	10 puntos



- 10 urte baino gehiago	12 puntu	- Más de 10 años	20 puntos
Emakume parte-hartzaileak diru-laguntzagatik		Número de Mujeres participantes en el Programa	
- 5 parte-hartzaile baino gutxiago	5 puntu	- Menos de 5 participantes	5 puntos
- 6 eta 25 bitarte	10 puntu	- Entre 6 y 25 participantes	10 puntos
- 26 eta 50 bitarte	15 puntu	- Entre 26 y 50 participantes	15 puntos
- 51 eta 100 bitarte	20 puntu	- Entre 51 y 100 participantes	20 puntos
- 101 eta 200 bitarte	25 puntu	- Entre 101 y 200 participantes	25 puntos
- 200 parte-hartzaile edo gehiago	30 puntu	- Más de 200 participantes	30 puntos
Programaren kirol Maila		Nivel Deportivo del Programa	
- Nazioarteko parte-hartzea	20 puntu	- Ámbito Internacional	20 puntos
- Estatuko parte-hartzea	15 puntu	- Ámbito Estatal	15 puntos
- Parte-hartze Autonomikoa	10 puntu	- Ámbito Autonómica	10 puntos
- Herriko/ Probintziako parte-hartzea	puntu 5	- Ámbito Local-Provincial	5 puntos
Programaren aurrekontua		Presupuesto del programa	
3.000€tik beherakoa,	puntu 10	Inferior a 3.000.-€	10 puntos
3.000 eta 6.000€ artean,	15 puntu	Entre 3.000 y 6.000.€	15 puntos
6.001 eta 12.000€ artean,	20 puntu	Entre 6.001 y 12.000.€	20 puntos
12.001€tik gora,	25puntu	Mayor de 12.001.€	25 puntos
GEHIENEZ 127 PUNTU		MÁXIMO 127 PUNTOS	

DIRULAGUNTZA DOITZEA

→ *Entitate edo klub bakoitzak eskaera bakarra egin ahal izango du.*

→ *Dirulaguntza jasotzeko, gutxienez, 30 puntu lortu beharko dira.*

→ *Aurrekontua (6.000€) diru-laguntza jasotzeko eskaeren artean banatuko da, proposamen bakoitzak eskuratu duen puntu kopuruen arabera.*

7.- Diru-laguntza ordaintzea.

AJUSTE DE SUBVENCIÓN

→ *Se admitirá una sola solicitud por club o entidad deportiva.*

→ *La puntuación mínima para obtener subvención será de 30 puntos.*

→ *El presupuesto de la subvención (6.000€) se distribuirá entre las propuestas, en base a la puntuación obtenida según los criterios de valoración.*

7.- Abono de la subvención.



Diru-laguntza diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

%60 diru-laguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.

%40 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

8.- Diru-laguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzaren bigarren ordainketa diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hori aurkezteko epe muga 2019ko urriaren 1a izango da.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, ERRENTERIAKO UDALAK 2019 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN hamazazpigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

- a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.
- b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

Diru-laguntzaren eskabide ereduarekin batera doan dokumentazioa bete beharko da.

9. Dirulaguntzaren betebeharrak

Diruz lagundutako programek lehiaketa ofizial guztietan edo diruz lagundutako ekintzetan ikustarazi beharko dute Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluaren logoa ERRENTERIAKO UDALAK 2019 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN hamabigarren oinarrian

Los importes de subvención serán abonados de la siguiente forma:

60% tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

40% tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

8.- Justificación de la subvención.

El segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 1 de octubre de 2019.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoséptima de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2019:

- a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.
- b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

Deberá cumplimentarse la documentación que se adjunta al modelo de solicitud de subvención.

9. Obligaciones de la subvención

Los programas subvencionados deberán hacer visible en toda competición oficial o en las actividades subvencionadas el logotipo del Consejo de Igualdad además de lo especificado en las en la base decimosegunda de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUN-



adierazitakoaz gain.

Beren jardueraren berri emateko erabiliko dituzten baliabide eta kanal ugarietan Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluaren eta Errenteriako Udalaren babesa adieraziko dute. Idatzizko euskarrietan (iragarkiak, abisuak, kartelak, publizitatea, e.a.) Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluaren logoa eta Errenteriako Udaletxearen logoa erabiliko dute eta ahozkoan (bozgorailu, irrati, abisu, publizitate, agerraldi eta abarretan) Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluaren eta Errenteriako udalaren babesa aipatuko da. Honez gain, lehiaketa ofizial guztietan kontseiluaren eta udalaren logoak eraman beharko da.

Entitateek diruz laguntzeko kontuan hartu diren alderdiekin lotuta 2018-2019 denboraldian zehar gertatzen diren aldaketa guztien berri emango diote Berdintasunerako azpisailari.

Kirol-taldeek, lehiaketan denboraldian, komunikabideei eta Berdintasun azpisailari informazioa bidali beharko diote lehiaketaren emaitzen berri emanaz, gutxienez hamabostean behin eta euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERRENERIAKO UDALAK 2019 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

AYUNTAMIENTO DE ERRENERIA DURANTE EL AÑO 2019.

Las entidades subvencionadas en todos aquellos canales y recursos que utilicen para la difusión de su actividad harán mención al Consejo de Igualdad de Errenteria y el Ayuntamiento de Errenteria. En los soportes escritos (anuncios, avisos, carteles, publicidad, etc.) se utilizará el logo del Consejo de Igualdad y del Ayuntamiento de Errenteria. En las comunicaciones habladas (megafonía, radio, avisos, publicidad, comparencias, etc.) se hará mención al apoyo del Consejo de Igualdad y Ayuntamiento de Errenteria. Así mismo, llevarán consigo los logos del Consejo y Ayuntamiento a todas las competiciones oficiales.

Las entidades deberán mantener informada a la subárea de Igualdad de todos aquellos cambios que se produzcan durante la temporada 2018-2019 en relación a todos aquellos aspectos que hayan sido tenidos en cuenta para su subvención.

Las entidades subvencionadas deberán enviar, como mínimo una vez cada 15 días durante la temporada de competición, información a los medios de comunicación locales y a la subárea de igualdad de los resultados de las competiciones realizadas, en euskera o en las dos lenguas oficiales.

Nota importante: esta convocatoria deviene de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENERIA DURANTE EL AÑO 2019. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.